

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Clarence Saundersek lehen supermerkatua ireki zuenean, ez zuen bezeroen erosotasunean pentsatu, saltzailearentzat suposatzen zuen denbora aurrezpenean baizik. Salgaiak erosleen eskura jartzea bururatu zitzaion, eta horrela merkatariaik noizean behin kobratu eta produktuak birjarri besterik ez zuen egin behar. Guk gure proiektuarekin beste pausu bat eman nahi dugu, eta betidanik ezagutzen dugun supermerkatu horri beste zentzu bat eman eta eroslearen eguneroko erosotasunean pentsatzen hasi nahi dugu.

Guk inteligentziaz baliaturiko supermerkatu txiki autonomoak sortuko ditugu. GorrinGO supermerkatuak deituko dira, eta Euskadiko hiru hiriburuetan egongo dira kokatuak, eta dendara sartzeko bezeroak atean dagoen QR kodea mugikorrean eskaneatu, pantailan agertuko den web orrian erregistratu eta atea irekiko zaio. Bertan, bezeroak nahi dituen produktuak hartu, autokobrantsa kutxazainetan ordaindu eta, atean dauden sentsoreek produktu horiek ordaindu dituztela egiaztatzean, atea ireki egingo zaizkie. Gure supermerkatuek euskal produktu lokalak bultzatzeko intentzioa dute.



XXI. mendean jendeak erosotasuna bilatzen du, denbora aurreztuko dien zerbitzuetaz gozatu nahi dute, betiko supermerkatu horietan dagoen jendetza sahiestu nahian. Hirian lan egiten duen eta bazkaltzeko denbora gutxi duen langilearentzat zein lagunekin kalean gau zein arratsalde igarotzen dituzten gazteentzat perfektuak dira. Estilo, prezio eta mota ezberdinetako produktuen barietate handia kontsumitzailearengana gerturatuko dugu.



Horrez gain, gure supermerkatuek oinarri izango duten euskal nortasunagatik egingo dugu apustu, hemengo produktuak salduz, hau da, ZERO KILOMETROKO produktuak salduz. Produktu hauei esker bezeroarengandik produktuak freskoagoak eta hurbilagoak dira, eta

aztarna ekologikoa bete-betean murrizten da.